

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobemu Kontseiluaren 50/2023 Foru Dekretua abenduaren 26koa. Onespena ematea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeari

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak konturako ordainketak arautzen ditu XII. tituluko II. kapituluan, eta zehatzago azaltzen ditu abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga horren erregelamenduaren VII. tituluaren.

Foru dekretu honen helburu nagusia da onestea lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehuneko taula berri bat.

Foru Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioei dagokienez, xedapen hau beharrezkoa da lan etekinak doitzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifari, eta xedapen hau da tresnarik egokiena xede hori lortzeko. Bat etorriaz proportzionaltasun printzipioarekin, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasun printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere helburua.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inaktuaren txosten laburra.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onesten duena

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 84. artikulua 1. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

"1. Atxikipenen ehunekoaren taula orokorra.

URTEKO ETEKINAK, ZENBATEKOA (€)		ONDORENGO KOPURUA						
NOIZTIK	NOIZ ARTE	0	1	2	3	4	5	GEHIAGO
0,00	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	15.410,00	5	3	0	0	0	0	0
15.410,01	16.230,00	6	4	1	0	0	0	0
16.230,01	17.370,00	7	5	3	0	0	0	0
17.370,01	18.680,00	8	6	4	0	0	0	0
18.680,01	19.970,00	9	7	5	2	0	0	0
19.970,01	21.520,00	10	8	6	3	0	0	0
21.520,01	23.350,00	11	10	8	5	1	0	0
23.350,01	24.970,00	12	11	9	6	3	0	0
24.970,01	26.930,00	13	12	10	7	4	0	0
26.930,01	29.260,00	14	13	11	9	6	2	0
29.260,01	32.010,00	15	14	13	10	8	4	0
32.010,01	35.330,00	16	15	14	12	9	6	0
35.330,01	39.900,00	17	16	15	13	11	8	0
39.900,01	43.590,00	18	17	16	15	13	10	2
43.590,01	46.980,00	19	18	17	16	14	12	4
46.980,01	50.950,00	20	19	18	17	15	13	7
50.950,01	55.350,00	21	20	20	18	17	15	9
55.350,01	59.890,00	22	21	21	19	18	16	11
59.890,01	63.800,00	23	22	22	21	19	18	12
63.800,01	68.040,00	24	23	23	22	21	19	14
68.040,01	72.840,00	25	25	24	23	22	20	16
72.840,01	78.390,00	26	26	25	24	23	22	17
78.390,01	84.410,00	27	27	26	25	24	23	19
84.410,01	89.690,00	28	28	27	26	25	24	20
89.690,01	95.680,00	29	29	28	27	27	25	22
95.680,01	102.280,00	30	30	29	29	28	27	23
102.280,01	110.120,00	31	31	30	30	29	28	25
110.120,01	118.780,00	32	32	31	31	30	29	26
118.780,01	128.700,00	33	33	32	32	31	30	28
128.700,01	139.880,00	34	34	33	33	32	32	29
139.880,01	153.200,00	35	35	34	34	33	33	31
153.200,01	167.790,00	36	36	36	35	35	34	32
167.790,01	185.460,00	37	37	37	36	36	35	33
185.460,01	207.280,00	38	38	38	37	37	36	35
207.280,01	230.150,00	39	39	39	38	38	37	36
230.150,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	37

"

"4. Desgaitasuna duten langile aktiboak.

Desgaitasuna duten langile aktiboek artikulu honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen ehunekoaren taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

b) Ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun maila duten langile aktiboak, mugikortasun urriko gabezia egoeran daudenak, halakotzat hartuta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (desgaitasun maila aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Mugen (BLAM) azpibaremoan ehuneko 25eko edo gehiagoko azken mugikortasun muga lortzea.

c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (€)		DESGAITASUN GRADUA	
NOIZTIK	NOIZ ARTE	4.A) APARTATUA	4.B. APARTATUA ETA 4.C APARTATUA
0,00	24.970,00	9	12
24.970,01	32.010,00	7	12
32.010,01	46.980,00	6	10
46.980,01	55.350,00	5	10
55.350,01	78.390,00	4	8
78.390,01	118.780,00	3	6
118.780,01	185.460,00	2	5
185.460,01	Hortik gora	1	3

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2024ko urtarrilaren 1az gero jasotako ordainsariei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA